



IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA. 2022. URTEA

Iruñeko Udalak 2022ko IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETArako deia egiten du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak –2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 17koan– xedatzen duenarekin bat.

1.-XEDEA.-

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA. 2022. URTEA:

Bizitokia edo ikastetxea Iruñean duten gazteek egindako literatur lanik hoberenak saritzea da lehiaketaren helburua. Egileek lan bana aurkezten ahalko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librea izanen dute –euskaraz edo gaztelaniaz idatzita–, eta jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Lan bera ezin izanen da bi hizkuntzetan aurkeztu. Aurkeztutako lanek ezin izanen dute ez bultzatu ez erreproduzitu jarrera diskriminatzaile, xenofobo edo sexistarik, ezta pertsonen duintasunaren eta giza eskubideen kontra doanik ere.

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Honako sari-modalitate hauek ezarri dira:

Bai gaztelaniaz eta bai euskaraz, ezarritako modalitateak Poesia eta Narrazio Laburra dira. Bi kategoria ezarri dira bakoitzerako:

14 eta 16 urte bitarteko gazteak (biak barne), eta 17 zein 18 urtekoak (biak barne).

Hona hemen lanek izan beharko duten luzera:

Poesia: 14 bertso gutxienez, eta 40 gehienez.

Narrazio laburra: 2 orri gutxienez, eta 5 gehienez, alde bakar batetik eta lerro artean tarte bikoitza utzirik idatziak.

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 6.800 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida honen kargura:

80/33702/480000

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:

Hiru sari (lehena, bigarrena eta hirugarrena) eta bi accesit (lehena eta bigarrena) modalitate (poesia eta narrazio laburra), kategoria (14 urtetik 16ra eta 17tik 18ra) eta hizkuntza bakoitzeko (euskara eta gaztelania), honako diru-zuzkidurekin bat:

Lehen saria: 300 €

Bigarren saria: 200 €

Hirugarren saria: 150 €



Lehen accesita: 100 €
Bigarren accesita: 100 €

Sariei esleitutako diru-kopuruei dagokien atxikipena aplikatuko zaie, PFEZ dela medio.

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Lehiaketa honetan, bizitokia edo ikastetxea gaur egun Iruñean duten gazteek hartzen ahal dute parte. 14 eta 16 urte bitarteko kategorian, 14 urte beteta eta 17 urte baino gutxiago izan beharko dute lanak aurkezteko mugaegunean. 17 eta 18 urteko kategorian, 17 urte beteta eta 19 urte baino gutxiago izan beharko dute lanak aurkezteko mugaegunean.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak:

BAI EZ

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, zein epetan eta non.-

2022KO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETAKO IZEN-EMATEA ONLINE EGINEN DA.

Lanak helbide honetara bidali behar dira:

www.letragaztea.com edo www.letrajoven.com

Webgunearen hasierako orrian esteka bat paratuko da, 2022ko GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA izenburuaz, eta haren bidez zuzenean sar daiteke izena emateko formularioan eta oinarriak kontsultatu.

FORMULARIOA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Formularioa betetzeko, lauki guztiak bete beharko dira, agertzen diren ordenan.

1. Egilearen datuak bete

- Izen-abizenak:
- NAN:
- Jaioteguna:
- Helbidea:
- Herria:
- Telefonoa:
- Helbide elektronikoa:
- Ikastetxea:
- Lanaren izenburua:

2. Hizkuntza hautatu (euskara edo gaztelania)

3. Literatura-modalitatea hautatu (narrazioa edo poesia)

4. Adina hautatu (14tik 16ra edo 17tik 18 urte bitarte)

5. Idazlanaren fitxategia igo. Fitxategi bakarra igo beharko da, PDF formatuan (sistemak ez ditu beste luzapenen bat duten fitxategiak onartuko), honako izen honekin: IDAZLANAREN IZENBURUA.pdf (adibidez, UDABERRIA.pdf). Ezin izanen da inolaz ere aipatu, ez fitxategiaren izenean ez edukian, egilea nor den, ezta haren datu pertsonalik ere.



6. Aurkeztutako idazlanaren egile-izaera baieztatzeko adierazpenean klik egin beharko da, non, halaber, idazlana jatorrizkoa eta argitaragabea dela adieraziko baita.

Formularioa igortzeko, sakatu horretarako gaitu den botoia. Izapide horrek ez du amaitzen izen-ematea. Mezu elektronikoa bat bidali zaizula jakinaraziko zaizu, formularioko datuen laburpenarekin, datu pertsonalen atalean emandako helbide elektronikora. Mezu horretan, aurkeztutako datuekin ados egonez gero, aukera edukiko duzu BALIOZKOTZEKO ETA IZEN-EMATEA BUKATZEKO.

Behin aurrekoa amaitu eta gero, azken mezu bat jasoko duzu, honako hauekin: lehiaketan parte hartzearen BAIEZTAPENA, idazlanaren IZENBURUA (2. apartatua emana), IDENTIFIKAZIO AGIRIA eta lehiaketan erreferentzia izanen duen PLIKA-ZENBAKIA. Mezu hori izanen da lehiaketan parte hartzeko egiaztagiria.

Lehiaketaren plataformara igotako idazlanak Udalaren zerbitzarian egonen dira, lehiaketaren azken fasea amaitu arte. Gero, sistematik baztertuko dituzte, salbu eta saritutako lanak, zeinak Iruñeko Udalaren artxibo digitalean gordeko baitira.

Halaber, honako toki hauetan egin ahalko da lehiaketarako izen-ematea eta lanak aurkeztu: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia - Kale Nagusia 2, behea) edo erregistro osagarrietan (Descalzos k. 72, 2. solairua; Iratxeko Monasterioaren k. 2, behea; Armada etorbidea 2, 5. solairua; Zapatería k. 40, behea; Eslava k. 1, behea).

Kasu honetan, interesdunek gutun-azal itxi bat aurkeztuko dute, eta haren barruan, lanaren kopia bat. Gutun-azalaren kanpoko aldean, honako testu hau idatzi behar da:

- IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA. 2022. URTEA
- Hizkuntza (Euskaraz edo gaztelaniaz)
- Modalitatea (narrazioa edo poesia)
- Lanaren izenburua
- Egilearen adina
- Ikastetxea

Gutun-azal horren barnean, beste gutun-azal bat sartuko da, itxita eta kanpoaldean lanaren izenburua idatzita eramanen duena, eta horren barnealdean, orri bat, egilearen datu pertsonal hauek adierazita: izen-abizenak, jaiotze-data eta jaioterria, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa, horiek guztiak lanaren egileari dagozkionak. Baldin eta lan batean ez badira egilearen datuak behar bezala ematen, lana ezin izanen da lehiaketan onartu.

Iruñeko Udalak bermatzen du datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia beteko duela, zeina jasota baitago Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuko (EB) eta Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko 216/679 Erregelamenduan.

Hurrengo paragrafoan adierazitakoa gorabehera eta parte-hartzaile guztien anonimotasuna bermatze aldera, baztertu egin da lanak Iruñeko Udalaren edo beste administrazio batzuen erregistro elektronikoen bidez aurkezteko aukera.

Halaber, beste edozein bide erabiltzen ahalko da lanak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen artean.

Lanak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik



aurrera hasiko da, eta 2022ko apirilaren 29an amaituko.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak suntsitzen ahalko ditu jaso ez diren lanak, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAIA.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua:
- Epaimahaikideak:
- Idazkaria:

Gaztelaniazko lanetarako:

- Epaimahaiburua: Iruñeko Udaleko Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zinegotzi ordezkaria / Ordezkoa: Iruñeko Udaleko Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zuzendaria.
- Epaimahaikideak: Hizkuntza eta Literaturako bi irakasle eta literaturan aditu bat.
- Idazkaria: Gazteriako teknikari bat.

Euskarazko lanetarako:

- Epaimahaiburua: Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorreko zinegotzi ordezkaria / Ordezkoa: Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorreko zuzendaria.
- Epaimahaikideak: Hizkuntza eta Literaturako bi irakasle eta literaturan aditu bat.
- Idazkaria: Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorreko teknikari bat.

Epaimahaiak organo eskudunari, hau da, Hezkuntza, Herritarren partaidetza eta Gazteriako Alorreko zinegotzi ordezkariari, aurkeztuko dio sari-proposamena, horrek sari-ematearen gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: BAI EZ

Epaimahaiak proposatu ahal izanen du modalitate, hizkuntza eta kategoria bakoitzeko bi accesit ematea (lehen eta bigarrena), bakoitza 100 eurokoa.

Epaimahaiak eman gabe uzten ahalko ditu, aurreikusitako sariak oro edo horietako batzuk.

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-

Iruñeko Udala da arduradun botere publikoetz baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es webgunean kontsultatu ditzakezu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratu daitezke, eta hedabide ezberdinetan zabaldu.

8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-



Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

Ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan eta iragarki-taulan eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen.

9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

Saridunek sari-banaketako ekitaldira joan beharko dute.

Lehiaketan parte hartzeak berekin ekarriko du sarrera libreko argitalpenak egiteko eskubideen lagapena onartzea, Creative Commons Reconocimiento - NoComercial - SinObraDerivada (by-nc-nd) lizentziapean, saririk jasoz gero.

Saritu gabeko lanak Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko Gazteria Unitatean jasotzen ahalko dira (Descalzos k., 72, 1 sol., Iruña).

Halaber, ekimenak abiatzen ahalko dira lanen berri emateko, haietan irabazleek ere parte hartzen ahal dutelarik, betiere horiek eta Udala elkarrekin ados jarrita.

Lehiaketaren izaerari eta xedeari erreparatuz, epaimahaiak alderdi hertsiki literarioez gain aurkeztutako lanen zuzentasun ortografikoa ere kontuan hartuko du.

10.- ERREKURTSOAK.-

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar haien lanekin parte hartzen dutenek oinarriak onartu eta horiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazkak oro organo emaileak ebatziko ditu.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeo errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.



SARI-DEIALDIA

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.